



## ITELAZPI, SA-REN KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK

---

## AURKIBIDEA

<b>AURREKARIAK .....</b>	<b>4</b>
<b>I. KAPITULUA. ITELAZPIREN KONTRATAZIORAKO JARRAIBIDE OROKORRAK .....</b>	<b>5</b>
1. KONTRATAZIO JARRAIBIDEEN HELBURUA ETA IRITSIERA .....	5
2. ITELAZPIREN KONTRATAZIOA ZUZENTZEN DUTEN PRINTZIZIOAK .....	5
3. NEGOZIOA ETA KONTRATU BAZTERTUAK.....	6
4. KONTRATUEI APLIKA DAKIEKEEN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA .....	7
5. ITELAZPIREN KONTRATAZIO ORGANOA.....	8
6. ITELAZPIK EGINDAKO KONTRATUEN TIPOLOGIA .....	8
7. KONTRATUGILE PROFILA .....	8
8. JURISDIKZIO ESKUDUNA .....	9
<b>II. KAPITULUA. ENPRESABURUJAREN AHALMENAREN ETA KAUDIMENAREN ARLOKO JARRAIBIDEAK .....</b>	<b>9</b>
<b>9. JARRAIBIDE KOMUNAK.....</b>	<b>9</b>
9.1 GAITASUN-BALDINTZAK .....	9
9.2 EUOPAR BATASUNEKOAK EZ DIREN ENPRESAK.....	9
<b>10. AHALMENARI BURUZKO JARRAIBIDEAK.....</b>	<b>10</b>
10.1 PERTSONA JURIDIKOAK.....	10
10.2 EUOPAR BATASUNEKO ENPRESAK .....	10
10.3 ENPRESEN ALDI BATERAKO ELKARTEAK .....	10
<b>11. KAUDIMENARI BURUZKO JARRAIBIDEAK.....</b>	<b>11</b>
11.1 KAUDIMENAREN ESKAKIZUNA .....	11
11.2 KAUDIMENAREN INTEGRAZIOA .....	11
11.3 KAUDIMEN-BALDINTZAK ZEHAZTEA.....	11
11.4 SAILKAPENAREN ESKAKIZUNA .....	12

<b>III. KAPITULUA. ITELAZPIREKIN KONTRATATZEAN ESKA DAITEZKEEN BERMEEI BURUZKO JARRAIBIDEAK .....</b>	<b>12</b>
12. BERMEEEN ERREGIMENA ETA ESKAKIZUNAK.....	12
13. BERMEEK ERATZEKO MODUA .....	12
<b>IV. KAPITULUA. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK EGITEKO JARRAIBIDEAK .....</b>	<b>12</b>
14. DEFINIZIOA.....	12
15. PRESTATZEA.....	13
16. ESLEIPENA .....	13
<b>V. KAPITULUA. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK EGITEKO JARRAIBIDEAK .....</b>	<b>14</b>
17. DEFINIZIOA.....	14
<b>18. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK PRESTATZEA .....</b>	<b>15</b>
18.1 JARRAIBIDE KOMUNAK .....	15
18.2 50.000 € BAINO GUTXIAGOKO OBRA-KONTRATUAK ETA 18.000 € BAINO GUTXIAGOKO ZERBITZU-ETA HORNIDURA-KONTRATUAK .....	15
18.3 GUTXIENEZ 18.000 €-KO ETA GEHIENEZ 50.000 €-KO ZERBITZU- ETA HORNIDURA-KONTRATUAK ETA 50.000 €-KO OBRA-KONTRATUAK:.....	15
18.4 ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK, 50.000 €-TIK GORAKO ZENBATEKOA DUTENAK. ....	16
<b>19. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK ESLEITZEA .....</b>	<b>17</b>
19.1 JARRAIBIDE KOMUNAK .....	17
19.2 50.000 € BAINO GUTXIAGOKO OBRA-KONTRATUAK ETA 18.000 € BAINO GUTXIAGOKO ZERBITZU-ETA HORNIDURA-KONTRATUAK.....	17
19.3 GUTXIENEZ 50.000 €-KO ETA GEHIENEZ 1.000.000 €-KO ZENBATEKOA DUTEN OBRA-KONTRATUAK ETA GUTXIENEZ 18.000 €-KO ETA GEHIENEZ 100.000 €-KO ZENBATEKOA DUTEN ZERBITZU- ETA HORNIDURA-KONTRATUAK.....	17

19.4	ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK, GUTXIENEZ 1.000.000 €-KO ZENBATEKOA DUTEN OBRA-KONTRATUEN KASUAN, ETA GUTXIENEZ 100.000 €-KO ZENBATEKOA DUTEN ZERBITZU- ETA HORNIDURA-KONTRATUEN KASUAN .....	18
<b>20.</b>	<b>ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK</b>	
	<b>PREMIAS BIDERATZEA .....</b>	<b>19</b>
<b>21.</b>	<b>FORMALIZAZIOA.....</b>	<b>19</b>
	<b>AZKEN JARRAIBIDEAK .....</b>	<b>20</b>
	<b>LEHENA.- KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEEN ETA SEKTORE PUBLIKOAREN KONTRATUEI BURUZKO LEGEAREN ARTEKO LOTURA.....</b>	<b>20</b>
	<b>BIGARRENA.- KONTRATAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA IGORTZEA.....</b>	<b>20</b>
	<b>HIRUGARRENA.- HERRI ADMINISTRAZIOEN KONTRATUETARA ATXIKITZEA.....</b>	<b>20</b>
	<b>LAUGARRENA.- NAZIOARTEKO MERKATARITZAN INDARREAN DAUDEN ARAUAK ETA ERABILERAK APLIKATZEA.....</b>	<b>21</b>
	<b>BOSGARRENA.- INDARREAN JARTZEA .....</b>	<b>21</b>
	<b>1. ERANSKINA.....</b>	<b>22</b>
	<b>2. ERANSKINA.....</b>	<b>23</b>
	<b>3. ERANSKINA.....</b>	<b>25</b>

## AURREKARIAK

2007ko urriaren 31ko Estatuko Aldizkari Ofizialean, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea argitaratu zen, eta Lege horrek ia osorik indargabetzen du Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Lege berriak intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin arautzen du sektore publikoaren parte diren entitateen kontratazio-prozedura, betiere entitate horien izaera juridikoaren arabera eta egiten dituzten kontratuen arabera. Entitate horien artean dago ITELAZPI; izatez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak % 100eko partaidetza du sozietatean, eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailera atxikita dago.

Horri dagokionez, honakoa eman behar da aditzera:

- Sozietatearen Estatutuen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera ITELAZPIren helburua da:
  - Telekomunikazioko sistemak eta azpiegiturak kudeatzea, ezartzea, ustiatzea eta mantentzea, betiere irrati eta telebistako seinaleak garraiatzeko eta hedatzeko zerbitzuak egiteko, irrati-komunikazioko, bideo-komunikazioko eta seinaleen transmisio eta konmutazioko zerbitzuak egiteko eta beste telekomunikazio-zerbitzu batzuk egiteko.
  - Espetro irratielektikoaren arloko plangintza teknikoko eta aholkularitzako azterlanak eta zerbitzuak egitea.
  - Bere jardun-esparruarekin lotzen diren enpresen kapitalean parte hartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari ITELAZPI sortzeko eta partaidetzak eskuratzeko baimena ematen dion irailaren 23ko 215/2003 Dekretutik ondoriozta daitekeenez, Euskal Autonomia Erkidegoak telekomunikazioen alorrean dituen jarduteko eskumenen ondoriozko betebeharrak betetzeko garatzen ditu sozietateak aurreko jarduera horiek guztiak.

- ITELAZPI Herri Administrazioetat jo ezin bada ere, honakoa hartu behar da aintzat:
  - Botere esleitzailera duen subjektu batek (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak) finantzatzen du nagusiki haren jarduera, kontrolatzen du haren kudeaketa, eta izendatzen ditu haren administrazio-organoko, zuzendaritzako edo zaintzako kideen erdia baino gehiago.
  - Interes orokorreko beharrak asetzeko batik bat sortu da, eta ez du industria- edo merkataritza-izaerarik.

Gauzak horrela, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 3.3b) artikuluan ezarritako irizpideen arabera, ITELAZPI botere esleitzailatzat jotzen da, eta horren arabera esparru juridikoa aplikatu dakieke haren kontratazio-prozedurei. Horrez gain, kontrataziorako barne-jarraibideak ere izan beharko ditu, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 175. artikuluan aurreikusten den bezalaxe.

Eskakizun hori betetzeko, ITELAZPIren Administrazio Kontseiluak, \_\_\_\_ (e)an egindako bilkuran honako kontrataziorako barne-jarraibide hauek onartu ditu, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 175. artikulua betez. Jarraibideen mende dauden kontratuak esleitzeko prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien esku jarriko dira jarraibide hauek, eta entitatearen kontratugile-profilean emango dira argitara.

## **I. KAPITULUA. ITELAZPIREN KONTRATAZIORAKO JARRAIBIDE OROKORRAK**

### **1. KONTRATAZIO JARRAIBIDEEN HELBURUA ETA IRITSIERA**

1. Jarraibide hauen helburua da Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 175. artikuluan aurreikusitakoa betetzea, eta, hala, ITELAZPIren barnean nahitaez bete beharreko kontrataziorako barne-jarraibideak arautzea. Kontrataziorako barne-jarraibide horiek publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak betetzen direla bermatuko dute, baita kontratuak ekonomikoki eskaintzarik onuragarrienari esleitzen zaizkiola ere.
2. Jarraibide horien helburua, funtsean, erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratazio-prozedurak egituratzea bada ere, jarraibide horietan erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak ere aipatzen dira. Horrela, erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak identifikatuko dira, kontratu horien esparru juridikoa osatzen duten Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen xedapenak zehaztuko dira, eta ITELAZPIk kontratu horiei dagokienez egiten dituen egintzak ezagutzeko jurisdikzio eskuduna adieraziko da. Izan ere, argibide hauen ikuspegitik, argitu egin nahi da ITELAZPIri aplikatu dakiokeen kontratazio-erregimen juridiko berria.

### **2. ITELAZPIREN KONTRATAZIOA ZUZENTZEN DUTEN PRINTZPIOAK**

1. ITELAZPIren kontratazio-prozedurak publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioekiko errespetuan oinarritzen dira.
2. Kontrataziorako barne-jarraibide hauek adierazitako printzipioak betetzen direla bermatzen dute eta gogobetetasunerantz bideratzen den jarduna ezartzen diote beti ITELAZPIren kontratazio-organoari.
3. ITELAZPIk bideratzen dituen kontratazio-prozeduretan aurreko 1 zenbakian aditzera emandako printzipioak aintzat hartzen direla bermatzeko, honako arauak hartu beharko dira beti aintzat:
  - a) Oro har, publizitatearen printzipioa ITELAZPIren kontratugile-profilean jasotzen den kontratu-informazioa hedatzearen bidez beteko da, betiere Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen arabera eska daitezkeen edo kontratazio-organoak komenigarritzat jotzen dituen beste publizitate-bitarteko batzuk erabiltzearen kalterik gabe.
  - b) Kontratuen xedea bereizkeriarik gabe deskribatuko da beti, ez da jatorri edo fabrikazio zehatz baten erreferentziarik egingo, ez dira produktu jakin batzuk edo marka, patente, mota, jatorri edo produkzio zehatz batzuk adieraziko, gisa horretako erreferentzia behar bezala justifikatzen denean eta "*edo baliokidea*" aipamenarekin batera egiten denean izan ezik.

- c) ITELAZPIren kontratazioa formala izango da, ez da ahozko kontrataziorik onartuko, kontratuak premiazko izaera duenean izan ezik –Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 97.1. artikuluan adierazitakoaren arabera–.
- d) Jarraibide hauen ondorioetarako, kontratuen balio zenbatetsia Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 76. artikuluan jasotzen diren arauen arabera kalkulatu da, dokumentu honen 5. jarraibidean ezarritakoaren kalterik gabe.
- e) ITELAZPIk egiten dituen kontratuen iraupena eta luzapenak kontratu bakoitzeko baldintzen eta eskakizunen orrian edo dokumentuan ezarriko dira. Nolanahi ere, zerbitzugintzaren izaera, finantziazioaren ezaugarriak eta horiek aldian behin konkurrentziaren mende jartzea hartuko da kontuan.
- f) Ez da Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako balizko lizitatzailleekiko zuzeneko eta zeharkako bereizketarik eragingo duen inolako baldintzarik jarriko.
- g) Hautagaiak tituluak, ziurtagiriak edo bestelako dokumentu justifikatzaileak aurkeztu behar badituzte, Europar Batasuneko beste Estatu batzuetako dokumentuak onartu beharko dira, betiere tituluak, ziurtagiriak eta diplomak elkarri onartzeko printzipioaren arabera.
- h) Interesa azaltzeko edo eskaintza bat aurkezteko emandako epeak egokiak izango dira Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako enpresek ere egin ahal izateko.
- i) Kontratu bat esleitzeko prozeduran lizitatzaille bat baino gehiago badago, guztiek kontratuari buruzko informazio bera -eta baldintza beretan- dutela bermatuko du ITELAZPIK. Halaber, lizitatzailleek kontratazio-prozeduraren barruan helarazitako informazioa behar besteko konfidentzialtasunez tratatu eta gorde beharko du ITELAZPIK.

### **3. NEGOZIOA ETA KONTRATU BAZTERTUAK**

Jarraibide hauez kanpo daude honako negozio eta erlazio juridiko hauek:

1. Lan-legerian arautzen diren kontratuak.
2. ITELAZPIk ondasunak edo eskubideak emateko edo zerbitzuren bat egiteko konpromisoa hartzen duen kontratua. Edonola ere, ondasunak eskuratzen dituenak edo zerbitzuren hartzaileak (baldin eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen mende dagoen sektore publikoko entitate bat bada) kontratua egiteko aginduetara moldatu beharko du.
3. ITELAZPIk entitate bati zerbitzu jakin bat egitea agintzeko oinarri dituen negozio juridikoak —entitate horrek berezko bitarteko izaera eta zerbitzu teknikoko izaera izan beharko du, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 24.6. artikuluan adierazitakoaren arabera–.
4. Estatuko Administrazio Orokorrarekin, entitate kudeatzaileekin, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaile eta zerbitzu komunekin, Unibertsitate Publikoekin, Autonomia Erkidegoekin, Tokiko Entitateekin, organismo autonomoekin eta gainerako entitate publikoekin elkarlanean jarduteko hitzarmenak, betiere hitzarmenaren xedea ez badago administrazio-arau berezietan arautako kontratuen xedeen artean, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen barruan.

5. Baloreak edo beste finantza-tresna batzuk jaulkitzearekin, erostearekin, saltzearekin eta eskualdatzearekin lotzen diren finantza-zerbitzuen kontratuak; finantza-kudeaketako eragiketak; funtsak edo kapitala lortzeko eragiketak; eta diruzaintzako eragiketak.
6. Ondasun higiezin, balio negoziagarrien eta jabetza ukiezin gaineko salerosketako, dohaintzako, trukeko, errentamenduko eta gainerako antzeko negozio juridikoetako kontratuak, betiere ordenagailuko programei ez dagozkienean eta hornidura-kontratu gisa edo zerbitzu-kontratu gisa kalifikatu behar direnean izan ezik.
7. Nazioarteko antolakunde baten berariazko prozedura baten bitartez egindako hitzarmenak eta kontratuak eta, Europako Erkidegoaren Eratze Itunaren arabera, Europar Batasuneko kide ez diren herrialde batekin edo batzuekin egindako nazioarteko akordioen ondoriozko kontratuak eta hitzarmenak, betiere obra bat elkarrekin egiteari edo ustiatzeari zuzendutako obrei edo hornidurei dagozkienean edo proiektu bat elkarrekin egiteko edo ustiatzeko zerbitzuen kontratuei dagozkienean.
8. Arbitrajeko eta adiskidetzeko zerbitzuei dagozkien kontratuak.

#### **4. KONTRATUEI APLIKA DAKIEKEEN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

1. ITELAZPIk esleitutako kontratuak kontratu pribatuak dira, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 20.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
2. ITELAZPIk egiten dituen kontratuak prestatzeko eta esleitzeko lanak Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen mende egongo dira, baita Lege hori garatzen duten xedapenen mende eta kontrataziorako barne-jarraibide hauen mende ere. Edonola ere, horien ordeztu administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, edo, hala badagokio, zuzenbide pribatuko arauak.

Ondorioei eta amaierari dagokionez, zuzenbide pribatuak zuzenduko ditu kontratu hauek.

3. Zehazki, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen I. Liburuan (sektore publikoaren kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egitura-elementuak) biltzen diren arauak aplikatu beharko dira, baldin eta haien edukiagatik ITELAZPIri aplikatzekoak bazaizkio –Herri Administrazio gisa kalifikatu ezin den botere esleitzaila den aldetik–.

Ildo horretan, ITELAZPIri aplikatzekoak zaizkion xedapen orokorren barruan, honako aginduek dute garrantzi berezia:

- 22. eta 23. artikuluek, kontratuen beharrari eta egokitasunari eta horien iraupenari buruzkoak.
- 25. eta 26. artikuluek, itunen askatasunari eta kontratuen gutxieneko edukari buruzkoak.
- 74. eta 75. artikuluek, kontratuen helburuari eta prezioei buruzkoak.

## **5. ITELAZPIREN KONTRATAZIO ORGANOA**

Administrazio Kontseilua da ITELAZPIren kontratazio-organoa, baina presidentearengan, ondorio horretarako ahalordeak dituzten sozietateko kontseilukideengan eta zuzendari nagusiarengan eskuordetuko du, honako zenbatekoen arabera:

1. 500.000 eurotik beherako kontratuetan (BEZ barne), ITELAZPIren presidenteak, ondorio horretarako ahalordeak dituzten sozietateko kontseilukideek eta zuzendari nagusiak jardungo dute kontratazio-organo gisa solidaritatez.
2. 500.000 eurotik gorako kontratuetan (BEZ barne) eta 2.000.000 eurora arte (BEZ barne), aurreko atalean aipatutako organoetako bik batera jardungo dute kontratazio-organo gisa.
3. 2.000.000 eurotik gorako kontratuetan (BEZ barne), ITELAZPIren Administrazio Kontseiluak jardungo du kontratazio-organo gisa.

Kontratuen esleipenaren gainerako ahalmenak ITELAZPI, SAren zuzendari nagusiari dagozkio, kontratuen zenbatekoa edozein izanik ere.

## **6. ITELAZPIK EGINDAKO KONTRATUEN TIPOLOGIA**

1. Kontrataziorako barne jarraibide hauen ondorioetarako, ITELAZPIk egin ditzakeen kontratuak honela sailkatuko dira: erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak eta erregulazio harmonizatuaren mende ez daudenak.
2. Horrez gain, erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuen kategoriaren barruan, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen II. Eranskinaren 17.etik eta 27.era bitarteko kategorien artean dauden eta gutxienez 193.000 euroko (BEZ kanpo) balio zenbatetsia duten zerbitzu-kontratuen aipamena egin behar da, haien erregimen juridiko berezia dela eta.

## **7. KONTRATUGILE PROFILA**

1. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 42. artikuluari jarraituz, eta ITELAZPIren kontratupeko jardueraren inguruko gardentasuna bermatzeko, eta kontratupeko jarduerari buruzko informazioa guztiengana irits daitekeela ziurtatzeko, kontratazio-organoak ITELAZPIren webgunearen bidez jarriko du eskura bere kontratugile-profila.
2. ITELAZPIk egiten dituen kontratazio-prozeduren inguruan garrantzitsua izan daitekeen informazio oro jasoaraziko da kontratugile-profilean, baita Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean edo honako jarraibide hauetan espresuki eskatzen den informazio oro ere.
3. ITELAZPIren web-orrian, kontratazio-plataforman eta lizitazioko pleguetan eta iragarkietan zehaztuko da kontratugile-profilera sartzeko modua.
4. ITELAZPIren kontratazio-profila eusten duen sistema informatikoak gailu egokia izan beharko du bertan gaineratutako informazioa noiz hasten den hedatzen zinez egiaztatzeko, betiere publizitatearen eta gardentasunaren printzipioen berme gisa.

5. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 175. artikulua eskakizunak betetzeko garaian, kontratugile-profilean emango dira argitara honako jarraibide hauek, eta ITELAZPIk egindako kontratuak esleitzeko prozeduretan parte hartu nahi duten guztien esku egongo dira.

## **8. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

1. ITELAZPIk egiten dituen kontratuak prestatzeari eta esleitzeari buruzko auziak ebazteko garaian, administrazioarekiko auziko jurisdikzio-ordena izango da eskuduna erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuetan, eta jurisdikzio-ordena zibila izango da eskuduna erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuetan.
2. Jurisdikzio-ordena zibila izango da ITELAZPIk egiten dituen kontratu guztien – harmonizatuaren edo harmonizatu gabeen– ondorioei, betetze-mailari eta iraungipenari dagokionez aldean artean sortzen diren auziak ebazteko eskuduna.

## **II. KAPITULUA. ENPRESABURUAREN AHALMENAREN ETA KAUDIMENAREN ARLOKO JARRAIBIDEAK**

### **9. JARRAIBIDE KOMUNAK**

#### **9.1 Gaitasun-baldintzak**

1. Jarduteko ahalmen osoa duten, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 49. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekuetako batean sartuta ez dauden eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen duten Espainiako edo atzerriko pertsona naturalek edo juridikoek soilik kontratatu ahal izango dute ITELAZPIrekin.
2. Enpresaburuek, halaber, kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzua egiteko eska daitekeen gaitasun enpresariala edo profesionala izan beharko dute.
3. Aurreko ataletan ezarritakoaren ondorioetarako, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen I. Liburuko II. Tituluaren II. Kapituluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

#### **9.2 Europar Batasunekoak ez diren enpresak**

1. Europar Batasunekoak ez diren Estatuetakoa pertsona fisikoek edo juridikoek honakoa justifikatu beharko dute dagokien Espainiako diplomaziako misio iraunkorraren txostenaren bidez: atzerriko enpresaren jatorrizko Estatuak onartu egiten duela Espainiako enpresek ITELAZPIren antzeko enpresen kontratazioan antzeko moduan parte hartu ahal izatea. Aurkeztu beharreko dokumentazioari txertatu beharko zaio txosten hori. Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuetan alde batera utziko da Merkataritzako Munduko Erakundearen kontratazio publikoari buruzko akordioa sinatu duten Estatuetakoa enpresekiko elkarrekikotasun-txostena.
2. Obra-kontratuak egiteko, halaber, behar-beharrezkoa izango da enpresa horiek Espainian sukurtsala edukitzea eta eragiketetarako ahalordeak izango dituzten ordezkariak esleituta egotea, baita Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea ere.

## **10. AHALMENARI BURUZKO JARRAIBIDEAK**

### **10.1 Pertsona juridikoak**

Pertsona juridikoak honako kontratuen esleipendun baino ezin izango dute izan: haien estatutuen edo eratzte-arauen indarrez berezkoak dituzten xedeen, helburuen edo jardueren-esparruen barruan zerbitzu egiteko kontratuen esleipendun.

### **10.2 Europar Batasuneko enpresak**

1. Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko beste Estatu batzuetako enpresek ITELAZPIrekin kontratatu ahal izango dute, baldin eta ezarrita dauden Estatuko legeriaren arabera kontratuaren xede den zerbitzua egiteko gaituta badaude.
2. Enpresa horiek ezarrita dauden Estatuko legeriak baimen berezia eskatzen duenean, edo dagokion zerbitzua egin ahal izateko antolakunde jakin bateko kide izatea eskatzen duenean, eskakizun hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

### **10.3 Enpresen aldi baterako elkarteak**

1. Ondorio horretarako aldi baterako eratzen diren enpresen elkarteak ITELAZPIrekin kontratatu ahal izango dute, eta horien eskritura publikoa ez da zertan kontratua beren alde esleitu arte formalizaturik.
2. Aldi baterako enpresen elkarte baten barruan parte hartzen duten enpresaburuek solidaritatearen mende izango dira eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute. Ahaldun horrek kontratuaren ondoriozko eskubideaz baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordea izango du kontratua iraungi artean, betiere zenbateko handiko kobrantzak edo ordainketak egiteko eman daitezkeen ahalorde amankomunatuaren kalterik gabe.

Lizitazioaren ondorioetarako enpresen aldi baterako elkarte baten barruan parte hartu nahi duten enpresaburuek, bestalde, elkarte osatzen dutenen izenak eta zirkunstantziak eta bakoitzaren partaidetza eman beharko dituzte aditzera. Era berean, kontratua esleitzen bazaie aldi baterako elkarte formaltasunez eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adieraziko dute.

3. Enpresen aldi baterako elkarteek kontratua iraungi arteko iraupena izango dute.
4. Sailkapena eskatzen den kasuetarako, eta aldi baterako elkartean Estatuko enpresaburuak, Europar Batasuneko estatu bateko nazionalitatea ez duten enpresaburu atzerriarrak eta Europar Batasuneko estatu bateko nazionalitatea duten enpresaburu atzerriarrak biltzen direnean, lehen bi multzokoek haien sailkapena egiaztatu beharko dute, eta azken multzokoek beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala.

## **11. KAUDIMENARI BURUZKO JARRAIBIDEAK**

### **11.1 Kaudimenaren eskakizuna**

1. ITELAZPIrekin kontratuak egiteko, kontratazio-organoak zehazten dituen kaudimen ekonomikoko, finantzarioko eta profesionaleko edo teknikoko gutxieneko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute enpresaburuek. Eskakizun hori sailkapenaren eskakizunarekin ordezkatuko da kontratazio-organoak hala eskatzen duenean.
2. Lizitazioaren iragarkian emango dira aditzera enpresaburuek bete beharreko kaudimenaren gutxieneko eskakizunak, baita gutxieneko horiek egiaztatzeke eskatzen den dokumentazioa ere. Haatik, kontratuaren pleguan edo eskaintzaren eskakizunak eta baldintzak biltzen dituen dokumentuan zehaztuko dira horiek, eta xedearekin lotuta egon beharko dute eta xede horrekiko proportzionalak izan beharko dute.
3. Erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuen kasuan, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 64. artikulutik 68. artikulura bitartean aurreikusten direnez bestelako kaudimen-frogak onartu ahal izango dira. Kaudimena frogatzeko beste bide horiek behar bezala zehaztu beharko dira eskaintzarako eskakizunak eta baldintzak biltzen dituen pleguan edo dokumentuan eta, hala badagokio, lizitazioaren iragarkian.
4. Enpresaburuak honela egiaztatuko ditu kaudimen-baldintzak: lizitazioan deitutako kontratuen mota bereko eta kategoria bereko edo handiagoko kontratuetarako sailkapena aurkezten duenean, eta lizitazioa egiteko horren jabe egotea eskatzen ez denean (Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 63.2. art.).

### **11.2 Kaudimenaren integrazioa**

Kontratu jakin bat egiteko beharrezko kaudimena egiaztatzean, beste entitate batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahal izango da enpresaburua –beste entitate horiek in dituen loturen izaera juridikoa edozein izanik ere–, baldin eta kontratua gauzatzeko benetan bitarteko horiek izango dituela frogatzen badu.

### **11.3 Kaudimen-baldintzak zehaztea**

1. Zerbitzu- eta obra-kontratuetan eta kokatzeko eta instalatzeko zerbitzuak edo lanak eskatuko dituzten hornidura-kontratuetan, pertsona juridikoei eskatu ahal izango zaie eskaintzan edo parte hartzeko eskaeran zehaztea zerbitzuak egingo dituzten langile arduradunen izenak eta lanbide-kualifikazioak.
2. Kontratazio-organoak honakoa jasoarazi ahal izango du eskaintzarako eskakizunak eta baldintzak bilduko dituen pleguan edo dokumentuan: hautagaiek edo lizitatzailleek kontratua gauzatzera behar besteko bitarteko pertsonalak eta materialak bideratu edo atxikiko dituztela hitz eman beharko dute –beren kaudimena edo, hala badagokio, sailkapena egiaztatzeaz gain–. Konpromiso horiek kontratuan barne hartuko dira, eta funtsezko betebeharrak gisa hartu ahal izango dira pleguetan, eskaintzaren eskakizunak eta baldintzak bilduko dituzten dokumentuetan edo kontratu-dokumentuetan. Bestalde, esleipendunak konpromiso horiek betetzen ez baditu, aplikatu beharreko zigorrak ezarriko dituzte adierazitako pleguek eta bi dokumentu horiek.

#### **11.4 Saillkapenaren eskakizuna**

1. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 54.5. artikuluan adierazitakoaren indarrez, ITELAZPIK saillkapen jakin bat eskatu ahal izango die lizitatzaillei kaudimen-baldintzak definitu ahal izateko. Edonola ere, kontratazio-organoak esleitu beharreko kontratuaren ezaugarri berezien arabera komenigarria dela uste duen suposizioetan eskatuko du saillkapena. Eskaintzaren eskakizunak eta baldintzak jasoko dituen dokumentuan edo pleguetan espresuki jasoarazi beharko du saillkapena.
2. Estatuko Lizitatzailleen eta Enpresa Saillkatuen Erregistro Ofizialean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Saillkapenean eta Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatzearen ziurtagiriek bertan jasotzen diren kaudimen- eta ahalmen-zirkunstantziak egiaztatuko dituzte.

### **III. KAPITULUA. ITELAZPIREKIN KONTRATATZEAN ESKA DAITEZKEEN BERMEEI BURUZKO JARRAIBIDEAK**

#### **12. BERMEEN ERREGIMENA ETA ESKAKIZUNAK**

1. ITELAZPIren kontratazio-organoak bermea aurkeztea eskatu ahal izango die lizitatzaillei edo hautagaiei. Berme horren bidez, kontratua behin-behineko eta, hala badagokio, behin betiko esleitu arte eskaintzei eusten zaiela ziurtatuko da, eta zerbitzua behar bezala gauzaten dela bermatuko da.

Berme horiek eskatzen direla jasoarazi beharko da espresuki pleguan edo eskaintzaren eskakizunak eta baldintzak jasotzen dituen dokumentuan eta, hala badagokio, lizitazio-iragarkian.

2. ITELAZPIren kontratazio-organoak ezarriko du aurreko taldean aditzera ematen diren bermeen zenbatekoa eta berme horiek itzultzeko edo ezeztatzeako erregimena. Horretarako, kontratuaren zirkunstantziak eta ezaugarriak hartuko ditu kontuan.

#### **13. BERMEAK ERATZEKO MODUA**

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 92.2. artikuluari jarraituz, aurreko jarraibideko bermeak Lege horretako 84. artikuluan aurreikusten diren moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

### **IV. KAPITULUA. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK EGITEKO JARRAIBIDEAK**

#### **14. DEFINIZIOA**

1. Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak daude Europar Batasuneko araudiaren mende eta, horrenbestez, kontratazioaren arloko Europar Batasuneko Arteztarauen eskakizunetara egokitzen diren berariazko esleipen-prozedura baten mende daude.

2. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean ezarritakoaren indarrez, erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratutzat hartuko dira ITELAZPIK esleitutako eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 13. artikulutik 17. artikulura bitartean ezarritako zenbatekoak gainditzen dituzten eta kategorietakoren batean sartzen diren kontratuak, betiere honako terminoetan:
  - a) Gutxienez 4.845.000 euroko balio zenbatetsia (BEZ kanpo) duten obra-kontratuak eta herri-lanak esleitzeko kontratuak.
  - b) Gutxienez 193.000 euroko balio zenbatetsia (BEZ kanpo) duten hornidura-kontratuak.
  - c) Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen II. Eranskinaren 1. eta 16. kategorien artean dauden eta gutxienez 193.000 euroko (BEZ kanpo) balio zenbatetsia duten zerbitzu-kontratuak.
  - d) Sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko elkarlan-kontratuak.
3. Edonola ere, ez dira erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratutzat hartuko, edozein balio izanik ere, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 13.2. artikuluan aipatzen diren kontratuak (jarraibide hauetako **1. Eranskinean** transkribatzen dira, informazio-ondorio hutsarekin).

## 15. PRESTATZEA

1. Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuen agindu teknikoak definitzeko eta ezartzeko garaian, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 101. artikuluan ezarritako arauak hartuko dira aintzat, eta, halaber, aplikatzekoa izango da arau horren 102. artikulutik 104. artikulura bitartean aurreikusten dena, baita 2008ko apirilaren 29ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez (116. EHAA, ekainaren 19koa) onartutako kontratazioan gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta beste politika publiko batzuk txertatzeko instrukzioa ere.
2. Ateratu ezin den behar bati aurre egiteko kontratua egitea beharrezkoa bada edo interes publikoko arrazoen ondorioz esleipena bizkortzea beharrezkoa bada, ITELAZPIren kontratazio-organoak premiazkotzat jo ditzake izapideak, baina behar bezala arrazoitu beharko du prestakuntzako dokumentazioan. Kasu horietan, epeak murrizteari dagokienez Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 96.2.b) artikuluan aurreikusten dena izango da aplikatzekoa.

## 16. ESLEIPENA

1. Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuen esleipena Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 12. artikulutik 172. artikulura bitartean zehazten diren arauen arabera zuzenduko da, betiere Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 174. artikuluan aurreikusten diren berezitasunekin:
  - a) Ez dira aplikatzekoak izango Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 134. artikulua 2. ataleko bigarren paragrafoan ezarritako arauak –irizpide subjektiboak baloratzeko aditu-batzordearen esku-hartzeari buruzkoak–, Lege beraren 136. artikulua 1. eta 2. ataletan ezarritakoak –eskaintzen ezohiko edo proportzioz kanpoko izaera hautemateko irizpideei buruzkoak–, 140. artikuluan ezarritakoak –kontratuak egiteari buruzkoak–, 144. artikuluan ezarritakoak –proposamenak

aztertzeari eta esleipen-proposamena egiteari buruzkoak– eta 156. artikuluan ezarritakoak –zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozedura negoziatura zein kasutan jo behar den zehaztekoak–.

- b) Ez da beharrezkoa izango aldizkari ofizialetan lizitazioak eta esleipenak argitara ematea (Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 126. artikuluko 1. atalaren lehen paragrafoan eta 138. artikuluko 2. atalaren lehen paragrafoan aipatzen diren aldizkari ofizialetan hain zuzen ere). Izatez, publizitatearen printzipioa bete egingo da Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 309. artikuluan aipatzen den kontratazio-plataforman informazioa txertatzearekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak kudeatzen duen sistema baliokidean informazioa argitara ematearekin, betiere bitarteko osagarriak nor bere borondatez erabiltzearen kaltetan izan gabe.
2. Kontratu horiek esleitzeko garaian, mahaiburua, lau mahaikide eta idazkari bat izango duen kontratazio-mahaia izendatuko du kontratazio-organoak. Mahaikideen artean aholkulari juridiko bat eta ITELAZPIren ekonomiaren eta aurrekontuen alorreko kontrol-funtzioak betetzen dituen pertsona bat egongo da.
3. Proposamenak jasotzeko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaia arduratuko da aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeaz, eskaintzak baloratzeaz eta kontratazio-organoari esleipen-proposamena egiteaz.

## **V. KAPITULUA. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK EGITEKO JARRAIBIDEAK**

### **17. DEFINIZIOA**

Hauek dira erregulazio harmonizatuaren mendeko ez dauden kontratuak:

1. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 13.2. artikuluan zerrendatzen diren kontratuak (jarraibide hauetako **1. Eranskinean** transkribatzen dira, informazio-ondorio hutsarekin).
2. Obra-kontratuak, hornidura-kontratuak eta zerbitzu-kontratuak Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen II. Eranskineko 1.etik 16.era bitarteko kategorietan, biak barne, sartzen direnak (jarraibide hauetako **2. Eranskinean** transkribatzen dira, informazio-ondorio hutsarekin), betiere Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 13. artikulutik 17. artikulura bitartean ezartzen diren zenbatekoetatik beherako balio zenbatetsia badute.
3. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen II. Eranskineko 17.etik 27.era bitarteko kategorietan sartzen diren zerbitzu-kontratuak (jarraibide hauetako **3. Eranskinean** transkribatzen dira, informazio-ondorio hutsarekin).

## **18. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK PRESTATZEA**

### **18.1 Jarraibide komunak**

1. Erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuen prestakuntza hurrengo ataletan aurreikusitako arauen arabera zuzenduko da, kontratu bakoitzaren balio zenbatetsiaren arabera (BEZ kanpo), betiere Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen II. Eranskineko 17.etik 27.era bitarteko kategorietan, biak barne, biltzen diren zerbitzu-kontratuak izan ezik –jarraibide hauen **3. Eranskinean** jasotzen dira– eta gutxienez 193.000 €-ko balio zenbatetsia badute (BEZ kanpo). Horien prestakuntza preskripzio teknikoak definitzeko eta ezartzeko 101. artikuluan xedatutakoari egokituko zaio, eta, halaber, aplikatzekoa izango zaie Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 102. artikulutik 104. artikulura bitartean aurreikusitakoa.
2. Jarraibide honetako izapide guztiak ITELAZPIren Intranetean ezarritako formularioei jarraituz egingo dira.

### **18.2 50.000 € baino gutxiagoko obra-kontratuak eta 18.000 € baino gutxiagoko zerbitzu- eta hornidura-kontratuak**

50.000 € baino gutxiagoko (BEZ kanpo) obra-kontratuak eta 18.000 € baino gutxiagoko (BEZ kanpo) zerbitzu- eta hornidura-kontratuak prestatzeko, behar-beharrezkoa izango da gastua onartzea eta espedienteari dagokion faktura txertatzea, honako terminoetan:

1. Ezarritako ereduaren araberako eskaera-orria edo erosketa-agindua bete beharko du teknikariak, eta, prozesuaren arduradunaren oniritzia jaso ondoren, finantza-zerbitzuan eman beharko du, bertan jasoaraz dezaten.
2. Obren kasuan, obren aurrekontua ere txertatu beharko da –berariazko arauak eskatzen dutenean bidezko proiektua egin beharraren kalterik gabe–.
3. Kontratazio-organoari edo funtzio hori eskuordetuta duen organoari dagokio eskaria edo erosketa-agindua onartzea.

### **18.3 Gutxienez 18.000 €-ko eta gehienez 50.000 €-ko zerbitzu- eta hornidura-kontratuak eta 50.000 €-ko obra-kontratuak:**

Gutxienez 18.000 €-ko eta gehienez 50.000 €-ko zerbitzu- eta hornidura-kontratuak eta 50.000 €-ko obra-kontratuak (BEZ kanpo) honako aurreikuspenen arabera prestatu beharko dira:

1. Prozedurari kontratuaren beharra justifikatzen duen **memoria** batekin emango zaio hasiera, baita kontratuaren kalkulu ekonomikoarekin eta eskaintza eskatuko zaien enpresekin ere. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 153. artikulua eta hurrengoan arabera lehia-salbuespena justifikatzen duten arrazoiak daudenean, argi azaldu beharko dira memorian.
2. Eskaintzarako eskakizunak eta baldintzak jasoko dituen **dokumentua** landuko da, eta bertan honako informazioa barne hartuko da:
  - a) Kontratuaren xedearen deskribapena eta ezaugarri nagusiak.
  - b) Kontratuaren prezioa, aplika dakizkiokeen zergak zehaztuta.

- c) Kontratuaren iraupena eta luzapenak. Lizitatzailleek aurkeztu beharreko dokumentazioa eta eskaintzak aurkezteko modua.
  - d) Ondasuna emateko edo zerbitzua egiteko lekua eta epea.
  - e) Ordaintzeko modua eta faktura jaulkitzeko betebeharra.
  - f) Zerbitzua eta hornikuntza behar bezala egiteko beharrezkoa izan daitekeen beste edozein baldintza edo eskuratu beharreko ondasunaren ezaugarrien ondoriozko beste edozein baldintza.
3. Aurreko atalean aipatzen diren memoria eta dokumentua finantza-arduradunari igorri beharko zaizkio, honek jasoaraz ditzan. Edonola ere, finantza-arduradunari bidali aurretik, prozesuaren arduradunak eta dagokion teknikariak sinatu beharko dituzte memoria eta txostena.

#### **18.4 Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak, 50.000 €-tik gorako zenbatekoa dutenak.**

50.000 € baino gehiagoko (BEZ kanpo) zenbatekoa duten eta erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak honako aurreikuspenen arabera prestatu beharko dira:

- 1. Prozedurari kontratuaren beharra justifikatzen duen **memoria** batekin emango zaio hasiera, baita kontratuaren kalkulu ekonomikoarekin ere. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen arabera publizitate eta/edo lehiako salbuespena justifikatzen duten arrazoiak daudenean, argi azaldu beharko dira memorian.
- 2. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 121.2. artikulua indarrez, ITELAZPIK **baldintza-plegua** landuko du eta plegu horretan gutxienez honako informazioa jasoko du:
  - a) Kontratuaren oinarrizko ezaugarriak –horien artean nahitaez sartuko dira xedea, kalkulaturako zenbatekoa, epea eta luzapenak izateko aukera–.
  - b) Aldaerak onartzeko erregimena.
  - c) Eskaintzak jasotzeko modalitateak.
  - d) Esleitzeko irizpideak.
  - e) Lizitatzailleek edo esleipendunak, hala badagokie, eratu beharreko bermeak.
  - f) Hala badagokio, lan-kontratuak subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 104. artikuluan aditzera ematen den bezalaxe.
- 3. Aurreko atalean aipatzen diren memoria eta plegua finantza-arduradunari igorri beharko zaizkio, honek jasoaraz ditzan. Edonola ere, finantza-arduradunari bidali aurretik, prozesuaren arduradunak eta dagokion teknikariak sinatu beharko dituzte memoria eta txostena.

## **19. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK ESLEITZEA**

### **19.1 Jarraibide komunak**

Jarraibide hauetan aurreikusten diren arauak gidatuko dute erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuen esleipena, betiere kontratu bakoitzaren zenbatekoaren arabera. Nolanahi ere, publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioen mende egongo da.

### **19.2 50.000 € baino gutxiagoko obra-kontratuak eta 18.000 € baino gutxiagoko zerbitzu- eta hornidura-kontratuak.**

1. 50.000 € baino gutxiagoko (BEZ kanpo) obra-kontratuak eta 18.000 € baino gutxiagoko (BEZ kanpo) zerbitzu- eta hornidura-kontratuak **zuzenean** esleitu ahal izango zaizkio jarduteko ahalmena duen eta zerbitzugintza egiteko beharrezko lanbide-gaitasuna duen edozein enpresabururi.
2. Esleipena eta onartutako eskaera kontratistari igorriko zaizkio eta horien kopia emango zaio finantza-zerbitzuari.

### **19.3 Gutxienez 50.000 €-ko eta gehienez 1.000.000 €-ko zenbatekoa duten obra-kontratuak eta gutxienez 18.000 €-ko eta gehienez 100.000 €-ko zenbatekoa duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak**

Gutxienez 50.000 €-ko eta gehienez 1.000.000 €-ko zenbatekoa duten obra-kontratuak eta gutxienez 18.000 €-ko eta gehienez 100.000 €-ko zenbatekoa duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak (BEZ kanpo) honako aurreikuspenen arabera esleituko dira:

1. Licitazio-faseari hasiera emateko, **lizitazioaren** informazioa argitaratuko du zerbitzu juridikoak ITELAZPIren kontratugile-**profilean** eta, hala badagokio, egoki iruditzen zaion beste edozein hedabidetan.

Ildo horretan, lizitazio-iragarkian esleitu beharreko kontratuaren funtsezko ezaugarrien deskribapen laburra jasoaraziko da, baita enpresekin negoziatuko diren alderdi ekonomikoak eta teknikoak ere.

2. Aurreko zenbakian adierazitakoaz adierazi, lizitazioaren informazioa ez da argitara eman behariko publizitaterik gabeko prozedura negoziatua aplikatzea erabaki den kasuetan – Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 154. artikulutik 159. artikulura bitartean eta 161. artikuluan ezarritako suposizioak biltzen diren heinean–.

Zehazki, gutxienez 50.000 €-ko eta gehienez **200.000 €**-ko zenbatekoa duten obra-kontratuetan eta gutxienez 18.000 €-ko eta gehienez **60.000 €**-ko zenbatekoa duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuetan, ez da beharrezkoa izango kontratugile-profilean lizitazio-iragarkia argitara ematea (Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 161.2. art.).

3. ITELAZPIren zerbitzu juridikoak eskaintza formalizatzeko eskakizunen eta baldintzen dokumentua edo, hala badagokio, plegua **hiru enpresa** gaituri, gutxienez, igorriko die – ahal den heinean bederen–, eta adierazten den epean eta moduan eskaintza bat aurkez dezaten eskatuko die (Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 162. art).

4. Eskaintzak jaso ondoren –halakorik jaso bada–, negoziagarri gisa finkatu diren alderdi ekonomikoak eta, hala badagokio, teknikoak lizitatzailerekin negoziatzeari egingo zaio, eskaintzarik onuragarriena identifikatzearen. Horretarako, pleguetan edo eskaintzarako eskakizunen eta baldintzen dokumentuan ezarritako esleipen-irizpide objektiboei jarraituko zaie.
5. Teknikariek aztertuko dituzte eskaintzak eta esleipen-**txosten** teknikoa egingo dute. Txosten horretan ITELAZPIrentzat ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena hautatuko da, ezarritako esleipen-irizpide objektiboen arabera.

Txosten hori, prozesuko arduradunaren oniritzia jaso eta gero, finantza-zerbitzuari igorriko zaio –jasoarako dezan–, baita kontratazio-organoari ere –esleia dezan–.

6. Kontratazio-organoak esleipena ebatzi ondoren, enpresa lizitatzaille guztiei emango zaie esleipenaren berri.

#### **19.4 Erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak, gutxienez 1.000.000 €-ko zenbatekoa duten obra-kontratuen kasuan, eta gutxienez 100.000 €-ko zenbatekoa duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuen kasuan**

Erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak, gutxienez 1.000.000 €-ko zenbatekoa duten (BEZ kanpo) obra-kontratuen kasuan, eta gutxienez 100.000 €-ko zenbatekoa duten (BEZ kanpo) zerbitzu- eta hornidura-kontratuen kasuan, honako aurreikuspenen arabera esleituko dira:

1. Lizitazio-faseari hasiera emateko, kontratua zuzenduko duten pleguak eta **lizitazio-iragarkia** argitaratuko ditu zerbitzu juridikoak ITELAZPIren kontratugile-**profilean** eta, hala badagokio, egoki iruditzen zaion beste edozein hedabidetan.

Dena den, honako kasuetan ez da beharrezkoa izango lizitazio-iragarkia kontratugile-profilean argitara ematea: Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 161. artikuluan adierazten denaren arabera argitara eman behar ez diren Lege bereko 154. artikulutik 159. artikulura bitartean biltzen diren prozedura negoziatua aplikatzeko kasuetan.

Ildo horretan, lizitazio-iragarkian esleitu beharreko kontratuaren funtsezko ezaugarrien deskribapen laburra jasotzeko da gutxienez, baita enpresekin negoziatuko diren alderdi ekonomikoak eta teknikoak ere.

2. Kasu zehatz bakoitzaren zirkunstantzietan eta ezaugarrietan erreparatuta kontratuak esleitzeko garaian, ITELAZPIk prozedura irekia edo prozedura murriztua egitea erabaki dezake. Prozedura irekian interesdun orok aurkeztu ahal izango du eskaintza eta prozedura murriztuan ITELAZPIk interesdun guztien artean gutxienez **5 izangai** hautatuko ditu eta horiek gonbidatuko ditu eskaintza aurkeztera. Nolanahi ere, pleguan finkatutako hautespene-irizpide objektiboen arabera jardungo du. Era berean, ITELAZPIk prozedura negoziatua edo publikatua gabeko prozedura negoziatua jo ahal izango du, Herri Administrazioetarako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean aurreikusten diren kasu beretan.
3. Teknikariek aztertuko dituzte eskaintzak eta esleipen-**txosten** teknikoa egingo dute. Txosten horretan ITELAZPIrentzat ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena hautatuko da, ezarritako esleipen-irizpide objektiboen arabera.

Txosten hori, prozesuko arduradunaren oniritzia jaso eta gero, finantza-zerbitzuari igorriko zaio –jaso araz dezan–, baita kontratazio-organoari ere –esleia dezan–.

4. Kontratazio-organoak esleipena ebatzi ondoren, enpresa lizitatuak guztiei emango zaie esleipenaren berri.

## **20. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK PREMIAZ BIDERATzea**

1. Pertsonentzat, ondasunentzat edo zerbitzuentzat arrisku larria eragiten duten hondamendien ondorioz edo gerora sortutako egoeren ondorioz premiaz eta berehala jardun behar denean, sortutako egoera zuzentzeko edo gerora sortutako beharra gogobetetzeko beharrezkoa den guztia gauzatzea agindu ahal izango da, dokumentu honetan aintzat hartzen diren eskakizun formalak aintzat hartu gabe eta prozedurak bideratu behar izan gabe.
2. Edonola ere, berehala emango zaio jardunaren berri Finantza Zerbitzuari eta Zuzendaritza Nagusiari.

## **21. FORMALIZAZIOA**

1. Esleipendunak kasuak kasu eska daitekeen dokumentazioa jarri duenean, esleipena jakinarazi eta hurrengo 10 lanegunetan barruan formalizatuko da kontratua.
2. Kontratatari egotz dakizkiokeen kausen ondorioz kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ezin denean, ITELAZPIk ondorioz gabe utz dezake esleipena. Hala eginez gero, jarritako behin-behineko bermea hartuko du eta eragindako kalteen eta galeren ondoriozko kalte-ordaina eskatu ahal izango du.
3. Baldintza-orrian edo eskakizunen eta baldintzen dokumentuan jada jasota daudenean salbu, erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden ITELAZPIren kontratuek honako aipamenak jaso beharko dituzte nahitaez:
  - a) Aldeen identifikazioa.
  - b) Kontratua izenpetzeko sinatzaileen ahalmenaren frogagiria.
  - c) Kontratuaren xedearen definizioa.
  - d) Kontratuari aplikatu dakioken legeriaren erreferentzia.
  - e) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda.

Kontratuan hala jasoz bada, zerrenda hori hierarkizatua egon daiteke, eta bi aldeek adostutako lehentasun-ordenaren arabera antolatuko da. Hala bada, eta ageriko akatsen bat agertzen denean izan ezik, hainbat dokumenturen artean kontraesanak daudenean, adostutako ordena erabiliko da lehentasuna finkatzeko.

- f) Benetako prezioa, edo hori finkatzeko modua.
- g) Kontratuaren iraupena edo kontratua gauzatzen hasteko eta amaitzeko kalkulatu diren datak, baita luzapenen datak ere –halakorik aurreikusita bada–.

- h) Zerbitzugintza hartzeko, egiteko edo onartzeko baldintzak.
  - i) Ordaintzeko baldintzak.
  - j) Kontratua etetea bidezko egiten duten kasuak.
  - k) Kontabilitateko programa edo errubrika –horren arabera ordainduko da prezioa, hala badagokio–.
  - l) Kontratistari ezartzen zaion konfidentzialtasun-betebeharraren helburu- eta denbora-iritsiera.
4. ITELAZPIk landutako eskaintzarako eskakizunen eta baldintzen dokumentua edo plegua eta esleipendunaren eskaintza kontratuaren parte izango dira.
- Kontratu-dokumentuak ezin izango ditu pleguan edo baldintza eta eskakizunen dokumentuan jasotzen direnez bestelako eskubideak eta betebeharrak barne hartu – eskubide eta betebeharrak horiek esleipendunaren eskaintzan adierazitako moduan zehaztuko dira–.
5. Aurreko bi ataletan xedatutakoaren gainetik, zerbitzu eta horniduren kasuan 18.000 eurotik beherako zenbatekoa duten erosketak eta gastuak direnean, eta obren kasuan 50.000 eurotik beherako zenbatekoa duten erosketak eta gastuak direnean, kontratua formalizatzeko nahikoa izango da gastua onartzea eta dagokion faktura eta eskaintzaren dokumentuak txertatzea.

## **AZKEN JARRAIBIDEAK**

### **LEHENA.- KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEEN ETA SEKTORE PUBLIKOAREN KONTRATUEI BURUZKO LEGEAREN ARTEKO LOTURA**

Kontrataziorako barne-jarraibide hauetan aurreikusten denaren eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen xedapenen eta Lege horren garapen-araudiaren artean kontraesanak egonez gero, azken hauek nagusituko zaizkie aurrekoei.

### **BIGARRENA.- KONTRATAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA IGORTZEA**

ITELAZPIk administrazioei eta dagozkien organismoiei informatzeko betebeharra bete beharko du, eta aplikatzekoak diren legeetan eta araudietan aurreikusten den bezalaxe egin beharko du.

### **HIRUGARRENA.- HERRI ADMINISTRAZIOEN KONTRATUETARA ATXIKITZEA**

Entitateak egiten dituen kontratuen esleipena arrazionalizatzeko eta antolatzeko garaian, ITELAZPIk esparru-akordioak egin ahal izango ditu, eskuratzeko sistema dinamikoak artikulatu ahal izango ditu edo Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio zentralizatuko sistemara atxiki ahal izango da –horretarako, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen III. liburuaren II. Tituluan biltzen diren xehetasunetara egokitu beharko da–.

## **LAUGARRENA.- NAZIOARTEKO MERKATARITZAN INDARREAN DAUDEN ARAUAK ETA ERABILERAK APLIKATZEA**

Atzerriko enpresetako ondasunak eta zerbitzuak eskuratzearen kasuetan, kontrataziorako barne-jarraibide hauek izango dira aplikatzekoak, bi aldeek adosten dutenaren kalterik gabe – betiere kontratuaren helburu den ondasunaren edo zerbitzuaren izaeraren eta ezaugarrien ondorioz, eta nazioarteko merkataritzan indarrean dauden arauen eta erabileren arabera–. Atzerrian formalizatzen eta gauzatzen diren kontratuetan, aldiz, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 1. Xedapen Gehigarrian adierazten diren berezitasunak izango dira kontuan.

## **BOSGARRENA.- INDARREAN JARTZEA**

Kontrataziorako barne-jarraibide hauek ITELAZPIren kontratugile-profilean argitara eman eta biharamunean jarriko dira indarrean, eta data horren ondoren hasten diren kontratazio-espedienteei aplikatuko zaie.

## 1. ERANSKINA

### **SEKTORE PUBLIKOAREN KONTRATUEI BURUZKO LEGEAREN 13.2. ARTIKULUAN BILTZEN DIREN KONTRATUAK**

Honako kontratuak ez daude erregulazio harmonizatuaren mende, balio zenbatetsia edozein izanik ere:

1. Irrati-difusioko organismoek irradi-difusiora zuzendutako programak erostea, garatzea, produzitzea edo koproduzitzea helburu duten kontratuak eta irradi-difusioko denborari dagozkionak.
2. Kontratazio-organoak osorik ordaindutako ikerketakoak eta garapenekoak, betiere emaitzak ez badira gordetzen kontratazio-organoak bere jardueran soilik erabiltzeko.
3. Europako Erkidegoa eratzeke Itunaren 296. artikulua definitutako esparruaren barruan eta defentsaren sektorean barne hartzen direnak.
4. Sekretu edo erreserbatu izendatzen direnak, edo gauzatzeko segurtasun-neurri bereziak behar dituztenak –indarrean dagoen legeriaren arabera–, edo Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babestea eskatzen dutenak.
5. Azken zirkunstantzia hori gertatzen den aitorpena espresuki egin beharko du, kasuak kasu, kontratazio-organoari dagokion ministerio-sailaren titularrak –betiere Estatuako Administrazio Orokorraren, haren organismo autonomoen, entitate kudeatzaileen eta Gizarte Segurantzaren zerbitzu komunien esparruan eta Estatuako gainerako entitate publikoen esparruan–. Aurrekoak ez bada, Autonomia Erkidegoko organo eskudunak, edo tokiko entitateetan kontratu hori egiteko eskumena duen organoak egin beharko du zirkunstantzia hori gertatzen den aitorpena. Aitorpen hori egiteko eskumena ezin izango da eskuordetu, lege batek espresuki baimentzen duenean salbu.
6. Kontratazio-organoei telekomunikazio-sare publikoak erabiltzea edo ustiatzea edo telekomunikazio-zerbitzu bat edo batzuk herritarrei egitea ahalbidetzea helburu nagusi dutenak.

## 2. ERANSKINA

### SEKTORE PUBLIKOAREN KONTRATUEI BURUZKO LEGEAREN II. ERANSKINEKO 1.ETIK 16.ERA BITARTEKO KATEGORIETAKO ZERBITZU KONTRATUAK

Kategoria	Deskribapena	CCP errefer. zenbakia	CPV errefer. zenbakia <sup>1</sup>
1	Mantentzeko eta konpontzeko zerbitzuak.	6112, 6122, 633, 886	50100000tik 50982000ra (honakoak izan ezik: 50310000tik 50324200ra eta 50116510-9, 50190000-3, 50229000-6, 50243000-0)
2	Lurreko garraio-zerbitzuak, furgoi blindatuen zerbitzuak eta mezularitza-zerbitzuak barne, posta-garraioa izan ezik.	712 (71235 izan ezik) 7512, 87304	60112000-6tik 60129300-1era (honakoak izan ezik: 60121000tik 60121600ra, 60122200-1, 60122230-0), eta 64120000-3tik 64121200-2ra
3	Airetiko garraio-zerbitzua: bidaiarien eta zamaren garraioa, posta-garraioa izan ezik.	73 (7321 izan ezik)	62100000-3tik 62300000-5era (62121000-6, 62221000-7 izan ezik)
4	Lurreko eta airetiko posta-garraioa.	71235, 7321	60122200-1, 60122230-0, 62121000-6, 62221000-7
5	Telekomunikazio-zerbitzuak.	752	64200000-8tik 64228200-2ra, 72318000-7, eta 72530000-9tik 72532000-3ra
6	Finantza-zerbitzuak: a) Aseguru-zerbitzuak. Banku eta inbertsioetako zerbitzuak.	ex 81, 812, 814	66100000-1etik 66430000-3ra eta 67110000-1etik 67262000- 1era
7	Informatika-zerbitzuak eta horiekin lotzen diren zerbitzuak.	84	50300000-8tik 50324200-4ra, eta 72100000-6tik 72591000- 4ra (72318000-7 eta 72530000-9tik 72532000-3ra izan ezik)
8	Ikerketa- eta garapen-zerbitzuak.	85	73000000-2tik 73300000-5era (73200000-4, 73210000-7, 7322000-0 izan ezik)
9	Kontabilitate-ikuskapen eta liburu-eramailtzako zerbitzuak.	862	74121000tik 74121250-0ra
10	Iritzi publikoaren inkestetarako	864	74130000-9tik 74133000-0ra,

<sup>1</sup> 2007ko azaroaren 28ko Batzordearen 213/2008 Erregelamendua (EK) aldatu egin du CPV erreferentzia-zenbakia. Izan ere, Kontratu publikoen bokabulario komuna (CPV) onartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 Erregelamendua (EK) aldatzen du 213/2008 Erregelamendua (EK) horrek.

Kategoria	Deskribapena	CCP errefer. zenbakia	CPV errefer. zenbakia <sup>1</sup>
	eta azterlanetarako ikerketa-zerbitzuak.		eta 74423100-1, 74423110-4
11	Zuzendaritza-aholkularien zerbitzuak eta horiekin lotzen diren zerbitzuak.	865, 866	73200000, 73210000, 73220000, 73200000-4tik 73220000-0ra, 74140000-2tik 74150000-5era (74142200-8 izan ezik) eta 74420000-9, 74421000-6, 74423000-0, 74423200-2, 74423210-5, 74871000-5, 93620000-0
12	Arkitektura-zerbitzuak; ingeniariitza zerbitzuak eta ingeniariitza zerbitzu integratuak; hiri-plangintza zerbitzuak eta arkitektura paisajistikoko zerbitzuak. Zientzia eta teknologiako aholkulariekin lotzen diren zerbitzuak. Saiakuntza eta analisi teknikoetako zerbitzuak.	867	74200000-1etik 74276400-8ra, 74310000-5etik 74323100-0ra, eta 74874000-6
13	Publizitate=zerbitzuak.	871	74400000-3tik 74422000-3ra (74420000-9 eta 74421000-6 izan ezik)
14	Eraikinak garbitzeko zerbitzuak eta ondasun higiezinak administratzeko zerbitzuak.	874, 82201etik 82206ra	70300000-4tik 70340000-6ra, eta 74710000-9tik 74760000-4ra
15	Argitaletxe eta inprimategietako zerbitzuak, tarifa edo kontratu bidezkoak.	88442	78000000-7tik 78400000-1era
16	Estolderiako zerbitzuak eta hondakinak ezabatzeko zerbitzuak: saneamendu-zerbitzuak eta antzeko zerbitzuak.	94	90100000-8tik 90320000-6ra, eta 50190000-3, 50229000-6, 50243000-0

### 3. ERANSKINA

#### SEKTORE PUBLIKOAREN KONTRATUEI BURUZKO LEGEAREN II. ERANSKINEKO 17.ETIK 27.ERA BITARTEKO KATEGORIETAKO ZERBITZU KONTRATUAK

Kategoria	Deskribapena	CCP1 errefer. zenbakia	CPV2 errefer. zenbakia <sup>2</sup>
17	Ostalaritza eta jatetxe-arloko zerbitzuak.	64	55000000-0tik 55524000-9ra, eta 93400000-2tik 93411000-2ra
18	Trenbide bidezko garraio-zerbitzuak.	711	60111000-9, eta 60121000-2tik 60121600-8ra.
19	Ibai- eta itsaso-garraioko zerbitzuak.	72	61000000-5etik 61530000-9ra, eta 63370000-3tik 63372000-7ra
20	Garraio-zerbitzu osagarriak edo lagungarriak.	74	662400000-6, 62440000-8, 62441000-5, 62450000-1, 63000000-9tik 63600000-5era (63370000-3, 63371000-0, 63372000-7 izan ezik), eta 74322000-2, 93610000-7
21	Zerbitzu juridikoak.	861	74110000-3tik 74114000-1era
22	Enplegu-zerbitzuak eta langileen hornidura.	872	74500000-4tik 74540000-6ra (74511000-4 izan ezik), eta 95000000-2tik 95140000-5era
23	Ikerketa- eta segurtasun-zerbitzuak, furgoi blindatuen zerbitzuak izan ezik.	873 (87304 izan ezik)	74600000-5etik 74620000-1era
24	Hezkuntzako eta lanbide-heziketako zerbitzuak.	92	80100000-5etik 80430000-7ra
25	Gizarte- eta osasun-zerbitzuak.	93	74511000-4, eta 85000000-9tik 85323000ra (85321000-5 eta 85322000-2 izan ezik)
26	Aisialdi, kirol eta kulturako zerbitzuak.	96	74875000-3tik 74875200-5era, eta 92000000-1etik 92622000-7ra (92230000-2 izan ezik)
27	Beste zerbitzu batzuk		

<sup>2</sup> 2007ko azaroaren 28ko Batzordearen 213/2008 Erregelamenduak (EK) aldatu egin du CPV erreferentzia-zenbakia. Izan ere, Kontratu publikoen bokabulario komuna (CPV) onartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 Erregelamendua (EK) aldatzen du 213/2008 Erregelamendu (EK) horrek.